


2014 OTS 21

Osakidetza
Servicio vasco de saludZerbitzuen
EginkizunakComisiones
de servicios

SARRERA / ENTRADA	IRTEERA / SALIDA
Zkia. N.º	Zkia. N.º 8077

93/2014 EBAZPENA, BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEARENA, BERARIAZKO DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA, ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO, OSAKIDETZAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2011KO MAIATZAREN 9KO MUGIKORTASUNAREN AKORDIOAN EZARTZEN DUENAREN ARABERA.

RESOLUCIÓN Nº 93/2014 DEL DIRECTOR GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE HACE PÚBLICA LA CONVOCATORIA PARA PROVISIÓN MEDIANTE COMISIÓN DE SERVICIOS DE UN PUESTO DE TÉCNICO SUPERIOR ORGANIZACION CONFORME AL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO EN EL ACUERDO DE MOVILIDAD DE 9 DE MAYO DE 2011 DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE OSAKIDETZA

Lanpostua: ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
Lantokia: BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO KALITATE ARLOA- BERRIKUNTZA ETA SISTEMETAKO ZUZENDARIODETZA

Hizkuntza-eskakizuna: 3.a. Derrigortasun-data gabea.

Puesto: TECNICO SUPERIOR ORGANIZACION
Localización: AREA DE CALIDAD - SUBDIRECCIÓN DE INNOVACIÓN Y SISTEMAS - RED DE SALUD MENTAL DE BIZKAIA

Perfil lingüístico: 3 sin fecha preceptividad

Betekizunak: (Agirien bidez egiaztatu beharko dira)

Requisitos: (Se deberán acreditar documentalmente).

1.- Deitzen den kategoria / lanpostu funtzionalean estatutario, karrerako funtzionario edo lan-kontratu finko moduan plaza jabetzan izatea, Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan edo Osasun Sistema Nazionalean.

1º.- Tener plaza en propiedad en cualquier Organización de Servicios de Osakidetza o en el Sistema Nacional de Salud como personal estatutario, funcionario de carrera o laboral fijo en la categoría / puesto funcional de que se trata.

2.- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera egitea, lanpostua jabetzan duen erakundea, edo zerbitzu aktibora berriro itzultzeko behin-behineko atxikipena duen erakundea ez den beste erakunde batean.

2º.- Estar en servicio activo y efectuar la solicitud para la cobertura de puestos en Organización de Servicios distinta de la que el/la interesado/a tenga plaza en propiedad o se encuentre adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

Osakidetzako langileek ez dute eskakizun horiek betetzen dituztela egiaztatu behar.

El personal de Osakidetza no deberá acreditar el cumplimiento de estos requisitos.

3.- Gutxienez, 5 urteko esperientzia antolakuntzako teknikari moduan kalitate arloan.

3º.- Experiencia mínima de 5 años como Técnico de Organización en el área de calidad.

4.- Lan-esperientzia erakunde sanitarioen planifikazio estrategikoan

4º.- Experiencia profesional en planificación estratégica de organizaciones sanitarias.

Baloratzeko merituak:

- Egindako zerbitzuak, kategoria honetarako azken lekualdatze lehiaketako deialdiko oinarrien arabera. (Gehienez, 37,5 puntu)
- Euskara: martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak ezarritako irizpideen arabera. (Gehienez, 7,5 puntu).
- Berariazko ezagutzak (Gehienez, 12,5 puntu).
 - Berrikuntza, sormeneko eta lan-taldeak errazteko teknikak.
 - EFQM Eredua: ebaluazioak eta kanpoko kontrasteak.
 - ISO arauen arabeko prozesuen kudeaketa eta kalitate sistemen ezarpena
 - Kalitate kudeaketa sistemen barne- auditoriak.

Méritos a valorar:

- Servicios prestados, en los términos de las bases de convocatoria del último concurso de traslados de esta categoría. (Max. 37,5 puntos)
- Euskera: conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo. (Máx. 7,5 puntos)
- Conocimientos específicos (Máx. 12,5 puntos)
 - Innovación, técnicas de creatividad y facilitación de equipos de trabajo.
 - Modelo EFQM: evaluaciones y contratos externos.
 - Implantación de gestión de procesos y sistemas de calidad según normas ISO.
 - Auditorias Internas de Sistemas de Gestión de Calidad.

Eskabideak non eta noiz aurkeztu:

Interesdunek eskabideko datu pertsonal guztiak bete, eta honekin batera Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuen ziurtagiriak, SAPEko Giza Baliabideetako kudeaketa-sisteman agertzen ez direnak, eta hizkuntza eskakizunaren egiaztapena, bidaliko beharko dute Bizkaiko Osasun Mentaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Mª Diaz de Haro 58, Bilbao).

Aurkezteko epea 2014ko otsailaren 24tik 2014ko martxoaren 18ra bitartekoa izango da.

Lugar y plazo de presentación de solicitudes:

Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales y acompañada de los certificados de servicios prestados fuera de Osakidetza y acreditación del perfil lingüístico que no consten en el sistema de gestión de RRHH de SAP, así como de su Curriculum Vitae, documentado en caso de que no figure validado en la aplicación CV de Osakidetza, a la Dirección de Personal de la RSMB (Mª Díaz de Haro nº 58, Bilbao)

El plazo de presentación será desde el día 24 de febrero de 2014 hasta el 18 de marzo de 2014.

Balorazio Batzordea:

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko.

Comisión de Valoración:

Se constituirá una comisión para la valoración de las solicitudes presentadas.

Hautatzeko prozedura:

Batzordeak baloratuko du interesdunek garaiz eta behar bezala aurkezten duten dokumentazioa. Hori egindakoa eta aztertutakoa kontuan hartuta, proposamena egingo da dagokion izendapena gauzatzeko. Batzordeak plaza hutsik utzi ahal izango du izangaiek ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen.

Zerbitzu-eginkizunen iraupena:

Iraupena lanpostua arauz bete arte; hala ere, Administrazioak askatasuna izango du onartutako zerbitzu-eginkizuna edozein unetan ezeztatzeko.

Ebazpenaren aurkako errekurtsoak:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Procedimiento de selección:

La comisión valorará la documentación presentada en tiempo y forma por los interesados. A la vista de la misma se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La comisión de valoración podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Duración de la Comisión de Servicios:

La duración será hasta la cobertura reglamentaria del puesto, sin perjuicio de que pueda revocarse libremente en cualquier momento la comisión de servicios concedida.

Recursos contra la resolución

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Bilbon, 2014ko otsailaren 21ean

Iz./Fdo: **BOMSeKO ZUZENDARI GERENTEA / DIRECTOR GERENTE RSMB**
BOMSeKO pertsonaleko zuzendaria (216/2012 Ebazpena, apirilaren 20koa)
Directora de Personal de la Red de RSMB (Resolución 385/2010, de 20 de abril)

Aratxu LOZANO OTERO

Osakidetza
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
Red de Salud Mental de Bizkaia

IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTITAKO IRAGARKI TULAN JARRIKO DA 2014ko OTSAILAREN 24AN
PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DÍA 24 DE FEBRERO DE 2014